



GOIZUETAKO ETA ARANOKO EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA AZTERTZEKO BEKA DEIALDIA

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Berdintasun Programaren baitan, Ikerketa Beka deialdia egin du, ondoko OINARRIEI jarraiki:

I. HELBURUA

Gaur egun emakumeen parte hartzea zenbait espaziotan normalizatuta badago ere, bidean aurkitutako oztopo eta erresistentziei aurka egitearen ondorio da. Lan honek, pertsona eta mugimendu hauen bizipenak jaso nahi ditu, hauengandik zuzeneko testigantzak jasoz, besteak beste; gatazkak, borrokak, esamesak, ixilean gordetakoak...

Aldi berean, errelato hauek jaso eta biltzeak gizon-emakumeen arteko berdintasuna lortzeko bidean emandako pauso eta lorpenak belaunaldi berriekin elkarbanatzeko balioko du, hausnarketa berrietarako tresna baliagarria izango delarik.

Bekaren helburua da Goizuetako eta Aranoko emakumeek XX. mendeko bigarren erditik gaur egun arte Goizueta eta Aranon parte-hartze arloan egin duten lanaren oroimena berreskuratzea, gizon-emakumeen berdintasunaren alde jardundakoei dagokien aitortza eginez.

II. IKERKETAREN EDUKIAK ETA EZAUGARRIAK

Ikerketa lana euskaraz izanen da eta hizkuntza ez-sexista erabiliz idatzi beharko da.

Ikerketaren oinarritzko ildoek ondokoak jorratu beharko dituzte:

- Eremu publikoan emakumeek jokatu duten papera, herriko emakumeen parte-hartzearen bilakaeran.
- Emakumeek jokatu duten papera, herriaren ohituren transmisioan eta bilakaeran.
- Egitekoen eta generoen arteko harremanen bilakaera ikertutako aldian.
- Emakumeen parte-hartzea herrigintzan
- Emakumeen parte-hartzea lan produktiboan

Ikerketa lanaren tamaina (memoria) 60-200 orrialde bitartekoa izanen da. Orrialde bakoitzak 30 lerro izanen ditu, grafikoak, argazkiak edo antzekoak jasotzen dituenak salbu. Eranskinei dagozkien orrialdeak ez dira kontuan hartuko puntu honetan ezarritako gutxienekoak betetzeko orduan.

III. BEKAREN EZAUGARRIAK

Bekak 5 hilabetez izanen du balioa, esleitzen den egunetik aurrera.

Bi hilabeteko epe-luzapena emateko aukera egonen da. Luzapen-eskakizuna epea bukatu baino hilabete bat aurretik aurkeztu beharko da.

Bekaren irabazleak 4.200 € jasoko ditu.



Ikerketa lana originala eta argitaragabea izanen da, osotasunean zein zatika.

Aurkeztutako lana ezin izanen da aurretik diruz ordaindutako lana izan.

IV. ESKATZAILEAK

Edozein norbanakok edo taldek eskatu ahalko du beka, ondoko baldintzak betetzen baditu:

- Adinez nagusi izatea.
- Euskara C1 maila izatea

Ezin izango dute beka honen onuradun izan, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorreko 13.2 artikulua ezartzen dituen debekuak dituzten pertsonak, hala nola: sententzia finko batek ezarrita diru-laguntzak jasotzeko debekua dutenak; edozein arrazoi dela medio, administrazioarekiko kontratuak bertan behera utzi dituztenak; gizarte segurantza eta bestelako ogasunarekiko zorrak dituztenak.

Gehienez hiru pertsonen osatutako taldeak onartuko dira, eta denek bete beharko dituzte atal honetan aipatutako baldintzak. Kasu hauetan, hiru kideak sinatutako aitortpena aurkeztu beharko dute, zeinetan, bekaren irabazle izanez gero, aipatutako parte-hartze maila betetzeko konpromisoa agertuko duten.

V. ESKABIDEETARAKO ARAUAK

Eskaerak eta gainerako agiriak aurkezteko epea, deialdia iragarri eta, 15 egun naturalekoa izanen da.

Eskaerak eta gainerako agiriak, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko bulegoan (Elbarren 1, Leitza) edota 39/2015 Legeak, Prozedura Administratibo Orokorren ingurukoak, bere 16.4 atalean jasotzen dituen prozeduren bidez aurkeztu ahalko dira. Eskabideak Correos bidez aurkeztuz gero, eskabide orriak Correoseko bulegoko zigilua jarria izan beharko du, bidalketa data ziurtatzeko. Bidalketa honen egiaztagiria sbleitza@infolocal.org helbidera bidali beharko dute, eskatutako epe barruan. Baldintza hau bete ezean, lehiaketatik kanpo geldituko dira hautagaiak.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa jarraian aipatutakoa izango da eta 2 gutunazaletan sartuta igorriko da:

1. **GUTUNAZALA – DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA: parte- hartzeko eskabidea eta dokumentazio administratiboa.**
 - a. Egilearen edo, kasua bada, talde ikertzailearen datuak, atxikitutako ERANSKINAREN ereduari jarraiki. Idazki honetan azalduko den helbide elektronikoa, prozedura honetarako jakinarazpen helbidea izango da.
 - b. Eskatzaile guztien nortasun agiri nazionalaren fotokopia.
 - c. Euskara tituluaren fotokopia konpultsatuta edo eskatutako maila baduela ziurtatzeko azterketa egiteko eskaera.



- d. Lana originala eta argitaragabea deneko aitortpena, atxikitutako ERANSKINAREN ereduari jarraituz.
- e. Merituak ziurtatzeko agiriak. Argi eta garbi agertuko da ikerketa arloan duten eskarmentua. Merituak ziurtagiri ofizial edo kopia konpultsatu bidez aurkeztu beharko dira, baloratuak izan daitezten.
- f. Gutunazalaren kanpoaldean “BERDINTASUN IKERKETA: DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA” idatzita agertuko da.

Mankomunitateak sobre hau erregistratuko du, sarrera zenbaki bat emanaz eta eskatzailearen datuak jasoz.

2. GUTUNAZALA - IKERKETA PROIEKTU PROPOSAMENA:

Proiektuaren anonimotasuna bermatzeko, partaideek SOBRE TXURI **HANDIA** aurkeztuko dute. Honetan ““BERDINTASUN IKERKETA: PROIEKTU PROPOSAMENA”” baino ez da idatzia egongo eta ez du bestelako inolako marka edo erreferentziarik izango. Gutun azal honi Gizarte Zerbitzuetako erregistroko sarrera emango zaio zenbaki bidez eta igorle “ezezagunarekin”.

Gutunazal honek dokumentazio hau gordeko du:

- **Ikerketa proiektu proposamena** eta egile moduan **GOITIZENA** azalduta. Proiektua paperean eta formatu digitalean ere aurkeztu beharko du (usb, cd...). Proiektuak ezingo du egile fisikoaren inguruko inolako erreferentzia edo aipamenik egin.
- **Gutunazal TXIKIA**, kanpoaldean GOITIZEN berdina idatziko da eta honen barnean, egilearen izen-abizena eta NAN zenbakia egongo da.

VI. PARTAIDEEN ONARPENA

Deialdian parte hartzeko epea bukatuta, epaimahaiak parte-hartzeko eskabideen dokumentazioa aztertuko du eta interesdunek, bekak ezarritako baldintzak betetzen dituzten edo ez aztertuko du.

Azterketa honekin dokumentazioa zuzen aurkeztua duten hautagaiak onartu eta eskabideetan gabeziren bat dutenen behin behineko zerrenda argitaratuko du. Zerrenda hau interesdunek zehaztutako helbide elektronikora bidaliko da eta honekin jakinarazitzat emanen da.

Eskabideetan gabeziren bat duten interesdune, jakinarazpena jaso dutenetik, 10 egun naturaleko epea izango dute gabezi horiek zuzentzeko.

Euskara maila ziurtatzeko agiririk ez duten hautagaiak, euskara proba egitea eskatu beharko dute eta hau gairiditu, behin betikoz partaide gisa onartuak izan daitezten. Behin behineko



onartuen zerrendarekin adieraziko da zein interesdunek ez duten irizpide hau betetzen, eta beraz, euskara proba zeintzuk egin beharko duten.

Zuzenketa epea amaituta, epaimahaiak, jasotako hobekuntzen dokumentazioa aztertuta, onartuen behin betiko zerrenda argitaratuko du, bere iragarki ohoan zintzilikatuta eta interesdunei emailez ere jakinaraziz.

Behin betiko hautagaiak finkatuta, hautaketa prozesuari hasiera emango zaio.

VII. ESLEIPEN PROZEDURA

Lehiaketa-oposizio prozedura bidez ebatziko da beka hau. Jasotako eskaera guztiak alderatu eta balorazio irizpideak aplikatu ondoren, baloraziorik onena jaso duen ikerketa proiektua aukeratuko da.

1. LEHIAKETA ATALA:

Partaideen behin betiko zerrenda iragarri ondoren epaimahaiak, barne mailako saioan bilduta, partaideek aurkeztutako merituen balorazioa egingo du. Meritu hauek, IX.3.b) atalean azaldutako irizpideen arabera baloratuko dira.

2. OPOSIZIO ATALA:

Epaimahaiak “BERDINTASUN IKERKETA PROIEKTU PROPOSAMENA” gordetzen dituen gutunazal handiak irekiko ditu eta gutunazal txikietatik banandu. Proiektu hauek, IX.3.a) atalean jasotako BALORAZIO IRIZPIDEEN arabera puntuatuko dira.

Onartutako zerrendara pasatzeko aurkeztutako lanek gutxienez 40 puntu lortu behar dituzte. Gutxieneko puntuazio hori lortzen duenik ez bada, desertu geratuko da eta ez da bekarik emanen.

Oposizio ataleko emaitza hauek, egile bakoitzaren goitzenaren erreferentziarekin, eta lehiaketa ataletik hautagai bakoitzak ateratako emaitzak, Gizarte Zerbitzuen iragarki ohoan zintzilikatuko dira eta interesdunei emailez jakinaraziko zaizkie.

Honekin batera “goitzenaren sobrea” ekitaldi publikoan irekitzeko hitzordua ere jakinaraziko da.

3. EGILEEN EZAGUTZA ETA PUNTUAZIO OSOAREN EMAITZAK.

Aurretik iragarritako leku eta orduan, epaimahaiak ekitaldi publikoan proiektuen egileen eta bere goitzenen arteko lotura gordetzen duen SOBRE TXIKIAREN IREKIERA egingo du.

Egileen erreferentzia ezagututa, bakoitzak lortutako oposizio eta lehiaketa ataleko emaitzak batuko dira eta puntuazio osoaren zerrenda osatuko da.

Horrela, bi ataletan lortutako puntuazioaren hurrenkeraren arabera hautagaien zerrenda osatuko du epaimahaiak eta emaitzarik altuena lortu duen hautagaiari (edo taldeari) esleitzea proposatuko du.



VIII. EPAIMAHAIA

Aurkeztutako eskaeren azterketa eta ebaluazioa egiteko epaimahai hautatzailea eratuko da, ondoko pertsonak osatuko dutena:

- Epaimahai burua: Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko ordezkaria eta Goizuetako Udaleko Alkatea, Unai Loiarte Ansa.
- Epaimahai buruaren ordezkaria: Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko ordezkaria eta Goizuetako Udaleko zinegotzia, Maria Pilar Apezetxea Elizalde.
- 1go mahaikidea: Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Euskara Mankomunitateko teknikaria, Kristina Urrutia Apezetxea.
- 1go ordezko: Basaburua, Imotz, Odieta eta Ultzamako Euskara Mankomunitateko teknikaria, Felix Altzelai Iriarte,
- 2. mahaikidea: Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko berdintasun teknikaria, Josune Antxo Adot.
- 2. mahaikidearen ordezkaria: Atarrabiako Udaleko Berdintasun Teknikaria, Irune Gastón Ripa.
- Idazkaria: Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko idazkaria, Amaia Elkano Garralda.
- Idazkari ordezkaria: Goizueta eta Aranoko Udaletako Idazkaria, Miriam Arozena San Miguel.

Hautaketa probak egin aurretik eratuko da epaimahaia, eta eratze hori eta jardutea baliozkoa izan dadin, gutxienez, kideen gehiengoa bertan izatea beharrezkoa izanen da. Era berean, epaimahaia eratzea eta jardutea baliozkoa izan dadin mahaiburua eta idazkaria bertan izatea beharrezkoa izanen da edo, bere kasuan, haiek ordezkatzeko dituztenak.

Mahaiburuak koordinatuko du probak egitea. Mahaikide guztiek izanen dute hitza eta botoa. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdi honen oinarriak ulertu eta aplikatzean sor litezkeen gorabehera guztiak.

Epaimahaiak informazio gehigarria eskatu edota egoki irizten dituen eskatzaileak deitu ahal ditu aurkeztutako proiektuaren defentsa egin dezaten.

Epaimahaiak aholkulari adituak ekarri ahal izanen ditu proba guzietarako edo batzuetarako bakarrik. Aholkulari horiek soil-soilik euren espezialitate teknikoak gauzatzeko lagunduko diote epaimahaiari, eta hitza izanen dute, baina ez botoa.

Oinarri hauek ulertuko dira berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak zaintzea hobekien bermatzen duen zentzu finalistan.



IX. AURKEZTU BEHARREKO PROIEKTU PROPOSAMENA:

Bekaren esleipena, eskatzaileek aurkeztutako proiektuaren kalitatearen arabera izango da.

1. BALORATUKO DEN PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK: .

- Euskaraz idatzia egongo da
- Hizkuntzaren erabilera ez sexista.
- Luzeera gehienez, 25 orrialde.

2. IKERKETA PROIEKTUAREN ATALAK:

- Ikerketaren marko teorikoaren planteamendua.
- Ikerketaren helburuak eta hipotesiak.
- Metodologia eta lan-plana
- Aurreikusitako emaitzak eta hauen interesa.

3. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Hautapen irizpideak hauek izanen dira:

A) Ikerketa proiektua (gehienez ere 75 puntu)

- 1.-Ikerketaren eduki guztiak jorratzea (deialdiaren bigarren puntuan aipatutako ardatzak), (gehienez 20 puntu)
- 2.-Ikerketaren marko teorikoaren planteamendua (gehienez 20 puntu)
- 3.-Metodologia eta lan-plana (gehienez 25 puntu)
- 4.-Ikerketaren argitasuna eta bideragarritasuna (gehienez 10 puntu)

B) Merituen balorazioa: Izangaien edo taldearen unibertsitate-ikasketak eta ikerketa arloan du(t)en eskarmentua (gehienez ere 25 puntu).

- 1.-Berdintasun arloko giza eta politika zientzietan formakuntza akademikoa (gehienez 8 puntu): Doktoretza, 5 puntu; masterra, 2 puntu; unibertsitateko graduondokoa, puntu bat.
- 2.-Ikerketa argitaratuak (gehienez 10 puntu): monografiak, entseguak, etab. 3 puntu aldizkari berezietan argitaratutako artikulu bakoitzeko, Kongresuetako komunikazioak, erreseinak etab. 0´5 argitalpeneko eta 5 puntu gehienez.
- 3.- Lan eskarmentua (gehienez 7 puntu): Berdintasun teknikaria edo emakume eta gizonen arteko berdintasun programa batean lan egitea, alor publikoetan zein pribatuetan. Urte bat, puntu bat (edo bere zati proportzionala).

Taldeka aurkeztuz gero, guztien meritua batuko dira eta batz bestekoa egingen dira.



X. IZANGAIEN BETE BEHARRAK

Bekaren onarpena sinatzea, beka eman deneko jakinarazpen egunetik hasita hamar eguneko epean.

Aurkeztutako proiektuarekin bat datorren memoria aurkeztea, egindako lanaren bilakaera azalduz, bekaren iraupenaren aurreneko beka hasten denetik hiru hilabeteren buruan. Hau ikusita, epaimahaiak ematen dituen aholku eta irizpideak kontutan hartu beharko dira.

Aurreikusitako planean edo ikerketa taldearen osaeran izandako aldaketen berri ematea. Ezingo da inolako aldaketarik egin Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen onespenerik gabe.

- Beka bukatzean memoria aurkeztea (lanaren azken idazketa). Lanaren hiru ale aurkeztu beharko dira, tarte bikoitzean mekanografiatuta, orrialdeak modu korrelatiboan zenbatuak eta behar bezala koadernatuta. Halaber, lana euskarri informatikoan aurkeztu beharko da (Microsoft Word 2003 programa edo formatu bateragarria).
- Ikerketa lana aurkezteko epea betetzen ez bada (justifikaziorik edo ezinbesteko arrazoirik ez bada), bekadunak zigorra jaso dezake. Bekaren %15a kendu ahal izanen zaio atzeratzen den hilabete bakoitzeko.

XI. ORDAINKETA

Bekaren ordainketa jarraian zehazten den eran egingen da:

- Kopuru osoaren %60, bekaduna izendatzean.
- Kopuru osoaren %20, beka eman eta hiru hilabetetara, ordura arte egindako lana egiaztatzen duen txostena aurkeztu ondoren.
- Gainerako %20, beka amaitutakoan, ikerketa lana (lanaren azken idazketa) aurkeztu ondoren.

Lana, hitzartutako epean aurkezten ez bada, Mankomunitateak, 15 egun naturaletan aurkezteko errekerimendua egingo dio egileari. Epe hau bukatuta, lana amaigabetzat joko da eta bekadunak jaso duen diru guztia itzuli beharko dio Mankomunitateari, Mankomunitateak eska ditzakeen kalte-galerengatik (kalte-ordainak) indemnizazioa baztertu gabe. Ikerketa lanak sor ditzakeen gastuak bekadunaren kontura izanen dira.

XII. AURKEZTUTAKO LANEN JABETZA

Aurkeztutako lanaren jabetza intelektuala, egileena izanen da. Nolanahi ere, Mankomunitateak, (edo hau osatzen duten Udalek, Mankomunitatearen oniritziarekin), saritutako lana argitaratu ahalko du(te), egilearekiko ordainketa eskubiderik sortu gabe .



Honek, hala ere, ez dio eskubiderik kentzen egileari ondotik egin nahiko lituzkeen argitaratzeak egin ahal izateko.

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak lan hau eta bertatik eratorritako ondorioak, xedatu ahalko ditu (ez bakarrik argitaratu).

Mankomunitateak beste zerbaiteko erabiliz gero, jatorrizko egilea zein izan den aipatu beharko du.

Mankomunitateak, hautaketa prozesu hau garatu dela justifikatzeko, hautagaiek aurkeztutako dokumentazio osoa gordeko du, ikerketa proiektuen proposamenak barne. Hala ere, ez du hauen gaineko erabilerarik egiteko eskubiderik izango.

XIII. OINARRIAK ONARTZEA

Beka honetan parte-hartzen dutenek oinarri hauek ezagutzen eta onartzen dituzte. Bertan datorren moduan, parte-hartzaileek Mankomunitatearen ebazpenek diotenari lotuko zaizkio.

XIV. HELETEGIAK

Interesdunek horren guztiaren berri izan dezaten eta dagozkion ondorioak sor ditzaten deialdi honen aurka errekurtsio hauetakoren bat jarri ahalko dela adierazten da:

1.- Aukeran, eta beti ere hilabeteko epean, berraztertze errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, edo gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua.

2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, aurreikusitako kasuetan salbu.



ERANSKINA:

**GOIZUETAKO ETA ARANOKO EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA AZTERTZEKO
BEKA DEIALDIA**

(Izen-abizenak) _____-k,

_____ NAN zenbakidunak, jakinarazpenetarako

helbide elektronikoa azaltzen duenak, K/.....(kalea,

portala, pisua) helbidean bizi denak, herrian, PK.....

eta kontakturako telefono zenbakia errazten duenak,

ESKATZEN DUT:

Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak, "GOIZUETAKO ETA ARANOKO EMAKUMEEN PARTE- HARTZEA AZTERTZEKO BEKA DEIALDIAN" hautagai izan nahi dudala,

Bakarrik

Beste kide hauekin batera:

2. taldekidea:(izen-abizenak) eta
..... (NAN zenbakia)

3. taldekidea:(izen-abizenak) eta
..... (NAN zenbakia)

Eta hautagai moduan onartua izan nadin/ izan gaitezen, nire izenean / taldekide guztien izenean honakoa

AITORTZEN DUT:

Adinez nagusi izatea.

Euskara C1 maila dudala ziurtatzen duen titulazioa izatea.

Euskara C1 maila dudala ziurtatzeko euskara proba egitea eskatzen dudala.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorreko 13.2 artikulua ezartzen duen debekurik ez dudala/ dugula ezarrita; hala nola: sententzia finko batek ezarritako diru-laguntzak jasotzeko debekua; edozein arrazoi dela medio, administrazioarekiko kontratuak bertan behera utziak izatea; gizarte segurantzaren eta bestelako ogasunarekiko zorrak edukitzea.

Aurkeztutako ikerketa proiektu proposamena eta ondoren osatuko den Ikerketa Memoria bera, originalak eta aurretik argitaragabeak direla.



Eta hori guztia justifikatzeko honako dokumentazioa

ATXIKITZEN DUT:

1go GUTUNAZALEAN: “BERDINTASUN IKERKETA: DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA”
deiturikoan:

- Eskatzaile guztien nortasun agiri nazionalaren fotokopia.
- Euskara tituluaren fotokopia konpultsatuta edo eskatutako maila baduela ziurtatzeko azterketa egiteko eskaera.
- Merituak ziurtatzeko agiri ofizial edo kopia konpultsatua. Argi eta garbi agertuko da ikerketa arloan duten eskarmentua.
- Besterik:
-
-

2. GUTUNAZALEAN: “BERDINTASUN IKERKETA: IKERKETA PROIEKTU PROPOSAMENA”
deiturikoan:

- Ikerketa proiektu proposamena, zeinetan nire / taldeko GOITIZENA idatzita dagoen
- Gutunazal TXIKIA: kanpoaldean GOITIZEN BERBERA idatzita duena eta barrualdean, taldekideon izen-abizenak eta NAN zenbakiak jasotzen dituen oharra duena.

Leitzan, 2018ko aren an.

Sinadura:

Honakoaren jakinaren gainean nago: emandako datu pertsonalak “sarrera eta irteera erregistroa” fitxategian geldituko dira, sarrera eta irteera erregistro legalak jasotzeko helburuz, eta bestelako fitxategietan, eskaeraren arabera beharrezkoa den kasuetan. Aresoko Udalaren ardurapeko artxiboa izanen da. Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamenduari buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 151. Artikuluan eta haren ondorengoetan xedatzen duena jarraituz jasoko dira datu pertsonalak. Eta modu iraunkorrean gordeko dira Artxibo eta Dokumentuen inguruko foru araudiari jarraituz. Datuak lortzeko, zuzentzeko, edo beharrezko ez direnean ezabatzeko eskubidea izanen dut. Egoera zehatzetan eta nire egoerari lotutako arrazoiengatik aurka egiteko eskubidea ere izanen dut, Udalaren egoitzara idatzizko eskaera bidaliz. Halaber, Datuen babeserako Espainiako Agentzian erreklamazioa aurkezteko eskubidea dut, gin den erabilera indarrean den araudiarekin bat ez datorrela uste badut.